



EROSKETA ETA EKIPAMENDUEN ZERBITZUA
JARDUNARI BURUZKO MEMORIA-TXOSTENA
2017

Informazioaren Gizartea eta Herritarren Partaidetza Arloa

2018ko apirila

AURKIBIDEA

Edukia

1.	ZERBITZUAREN HELBURUAK ETA FUNTZIOAK.....	4
1.1.	EROSKETA ZERBITZUAREN FUNTZIOAK.....	4
2.	2017ko ZIFRA NAGUSIAK.....	4
2.1.	Zuzenean esleitutako aurrekontua	5
3.	LORTUTAKO EMAITZAK	7
3.1.	Erosketa kudeaketa.....	7
3.2.	Ekipamendu proiektuen garapena.....	8
3.3.	Horniduren eta ekipamenduen datu ekonomikoak.....	9
3.4.	Kontsumoen eta Inbentarioen kontrola.....	11
3.5.	Ekipamenduak mantentzeko kudeaketa.....	20
4.	EKIPAMENDU PROIEKTUEN GARAPENA - INBERTSIOAK.....	24
4.1.	Aurrekontuan sartu eta 2017an egikaritutako proiektuak	24
4.2.	Emitza ekonomikoa	28

Erosketa eta Ekipamenduen udal-zerbitzuaren memoria honek 2017an departamentu honek izan dituen jardura nagusiak eta emaitzak identifikatzen eta deskribatzen ditu.

Erosketa eta Ekipamenduen zerbitzuaren helburua da modu zentralizatuan egitea udal-arloetarako erosketen kudeaketa, emandako aurrekontu bat kudeatuz, eta baita gainerako udal-departamentuetako erosketak eta proiektuen definizioak eta horniduren eta ekipamenduaren kudeaketa teknikoa ere.

Zerbitzuaren funtzioak eta helburuak definitzetik abiatuta, ibilbide bat egiten da gastu eta inbertsioko kontu-sailetako zifra nagusietatik, lortu den aurrezpena eta azken urteetako bilakaera azalduz. Nabarmendu beharra dago ahalegin handia egin dela kontsumo eta inbentarioen kontrolean, eta azken urteotan, zifra garrantzitsuak lortu dira aurrezpenean eta gastu publikoaren optimizazioan.

Memoria honen irismenaren barruan, Erosketa eta Ekipamenduen Zerbitzuko kudeaketa ekonomikoaren barruan gauzatu diren inbertsio-proiektuen xehetasun teknikoa eta ekonomikoa jasotzen da (instalazioak eta altzariak). Nabarmendu behar da diru asko aurreztu dela 2017an, aurreko urteetan baino gehiago, 2017ko aurrekontuan planteatutako proiektu guztiak egikaritu ondoren. Beraz, planteatutako ekipamendu-helburu guztiak bete dira.

2017an zehar baita ere **Palmera Montero gunearen** ustiaketa, mantentze eta funtzionamendu egokian lagundu da, zeina 2017ko abenduan abian jarri zen, hala nola areto polibalente guztietarako nahiz adinekoen espaziorako ikus-entzunezko sistema moderno bat ezarri zen. Horrek ahalbidetzen du proiektio, audio eta mikrofonian kalitate handia edukitzea eta ekintza mota desberdinetan erabiltzeko malgutasuna ere handia izatea. Gune hori, bai zentro zibiko gisa eta Irungo elkarte guztientzako espazioak eta ekipamenduak erabilgarri jarritz funtzionatzen duelako eta bai adinekoentzako bertan 140m²-ko gunea daukalako, oso harrera ona eduki du eta erabileran ere arrakasta nabarmena lortu du.

Aurrezpen horiek barne-lanaren fruitua izan dira; izan ere, lan handia egin da proiektuen definizio teknikoan, eta egikaritzaren koordinazioan eta kontrolean, zuzenean bere gain hartu baititu Erosketa eta Ekipamenduen Zerbitzuko Burutzak, eta ez da inongo kontsultore-etxetara edo kanpoko zuzendaritza teknikotara jo beharrik izan. Horren ondorioz, **diru asko aurreztu** da, eta, halaber, aukera ere eman du sistemak hobeto ezagutzeko eta kontrolatzeko. Eta horrek guztiak erraztu egiten du gerorako mantentze-lanak eta, beharrezko balira, zabaltze-lanak kudeatzea.

1. ZERBITZUAREN HELBURUAK ETA FUNTZIOAK

1.1. EROSKETA ZERBITZUAREN FUNTZIOAK

Udal-zerbitzuetarako Erosketa-bulego zentralizatu den aldetik, honako funtzio hauek ditu nabarmentzekoak Erosketa eta Ekipamenduen Zerbitzuak:

- **Materialen** hornikuntza izapidetu eta kudeatzea (altzariak, bulegoko materiala, udaltzaingorako eta obra-brigadarako jantziak, kode- eta informazio-seinaleak bide publikoetarako, material elektrikoa, material industrial, garbiketako materiala, landareen eta arbolen hornikuntza, iturgintzako materiala eta abar).
- **Ekipamendu eta azpiegitura teknikoak** definitu eta kudeatzea (bideo-zaintzako sistemak, ikus-entzunezko sistemak, irrati-transmisioko sistemak Udaltzaingorako, telefonia-sareak, alarma-sistemak, telekomunikazio-sistemak eta abar).
- Materialen hornikuntza kudeatu eta egitea, betebeharreko irizpideak ezarriz kalitateari, gaitasun teknologikoari, entrega-gaitasunari eta prezioari dagokienez.
- Udal-ekipamenduen kudeaketa egitea, hobetzeko eta sinplifikatzeko proposamenak eginez.
- Beharrak aztertzea, komunikazioak proiektatu eta kudeatzea (telefonia finkoa, mugikorra, transmisioak, ekipo eta zerbitzu bereziak), kanpoko nahiz barruko komunikazio-sareen azpiegitura eta haien mantentze-lana kudeatuz.
- Azterlanak eta proiektuak egitea, udalaren lantokietako planta-banatzeko berriei dagokienez, ekipamenduak aukeratzeko eta diseinatzen lagunduz, homogeneotasun-estandarrak mantendu daitezkeen zainduz, haien mantentze iraunkorrerako irizpide teknikoak ezarriz eta proposamenak eginez ergonomiaren gaian, azpiegituren diseinuan, eta instalazioetako arrisku-prebentzioaren eta segurtasunaren gaian.
- Jarraitutasunez kudeatzea udal-bulego eta -zentroetako ekipamendua eta materiala: altzariak, telefonia eta komunikazioak, inprimatze-sistemak, kopiatzea eta digitalizatzea, material eta makineria osagarria, seinaleztapena, ambientazioa eta abar, aurrekontuetan esleitutako baliabide ekonomikoak administratuz, kontsumoak eta gastuak kontrolatuz eta udal-ekipoen inbentarioen jarraipena egin eta eguneratuz.
- Eraikinetako eta bide publikoko bideo-zaintzako eta segurtasuneko proiektuak definitu eta koordinatzea, haien funtzionamendu etengabea eta mantentze egokia kudeatuz.
- Udalaren ibilgailuen eta makineriaren mantentze-lana kudeatzea, konponketak eta prebentziozko mantentze-lanak kudeatzeko irizpideak jakinarazita. Era berean, ekipo horietarako erregai-hornikuntza ere kudeatzea.

2. 2017ko ZIFRA NAGUSIAK

Erosketa eta ekipamenduen zerbitzu zentralizatua den aldetik, departamentu honek kudeatu ditu bai 2017ko aurrekontuen barruan zerbitzuari zuzenean esleitutako inbertsio eta erosketak bai udaleko beste arlo batzuen aurrekontuari dagozkionak.

2.1. Zuzenean esleitutako aurrekontua

2017an, udaleko Erosketa eta Ekipamenduen departamentuak, zuzenean esleitutako 886.743,82 €-ko aurrekontua kudeatu du gastu arruntean; 14 aurrekontu-aplikaziotan eta inbertsioei dagokionean banakatuta; guztira, hasieran onetsitako 966.743,82 €-ko aurrekontua. Guztira, 256.454,48 € aurreztu dira; hau da, % 27ko aurrezpena, hasieran aurreikusitako guztizko aurrekontuarekiko. Agiri honen 4. atalean jasotzen dira aurreikusitako inbertsio-proiektu nagusien diru zenbatekoak, erabat gauzatu direnak. Zenbaitetan diru zenbateko hori handitu egin izan da arloek urtean zehar izan dituzten beharren arabera.


Ondoren, esleitutako guztizko aurrekontuaren azken 5 urteetako eboluzioa jasotzen da, gastu arrunta eta inbertsioak, eta aurreztutakoa eta aurrezpenaren eboluzioa ere azalduz.

GUZTIRA	2013	2014	2015	2016 (*)	2017
Hasierako aurrekontua	892.812,00 €	813.350,00 €	978.890,00 €	1.549.215,66 €	966.743,82
Aurreztutako zenbatekoa	59.778,54 €	106.110,47 €	317.112,56 €	562.404,46 €	256.454,48 €
% aurrezpena	%7	%13	%32	%36	%27


(*) 2016ko aurrekontuetan 448.000 euro jaso ziren Palmera Montero gunea ekipatzeko

Hurrengo taulak eta grafikoak argi azaltzen du aurrekontuaren eboluzioa eta azken urteetan gastu arruntari lotutako kontu-sailetan lortutako aurrezpena:

GASTU ARRUNTA	2013	2014	2015	2016	2017
Hasierako aurrekontua	809.650,00 €	801.735,00 €	841.123,00 €	893.233,66 €	866.743,82 €
Aurreztutako zenbatekoa	57.599,43 €	106.108,32 €	311.037,05 €	346.606,45 €	334.128,11 €
% aurrezpena	%7	%13	%37	%39	%39




Ondoren, azken urteetan **gastu arruntean** izandako aurrezpenaren eboluzioa (%tan):



Hurrengo taulak eta grafikoak azken 5 urteetan aurrekontuan izandako eboluzioa eta gastu arruntari lotutako kontu-sailetan lortutako aurrezpena azaltzen ditu:

INBERTSIOA	2013	2014	2015	2016	2017
Hasierako aurrekontua	83.162,00 €	11.615,00 €	137.767,00 €	655.982,00 €	100.000,00
Aurreztutako zenbatekoa	2.179,11 €	2,15 €	6.075,51 €	215.798,01 €	7.229,71 €
% aurrezpena	%3	%0	%4	%33	%7

OHARRA: 2016ko inbertsioen aurrekontuan Palmera Montero gunerako ekipamenduak sartuta daude



OHARRA: 2016ko inbertsioen aurrekontuan Palmera Montero gunerako ekipamenduak sartuta daude

Memoria honen 4. atalean, “Ekipamendu-proiektuen garapena - Inbertsioak” izenburukoan, xehetasunez jasotzen dira 2017ko aurrekontuetan hasieran sartutako proiektuak eta urte osoan benetan egikaritutakoak. Ikusten da planteatutako helburu guztiak bete direla eta, horrenbestez, erosketan egindako kudeaketaren eta proiektuen definizio teknikoaren emaitza direla lortu diren aurrezpenak.

3. LORTUTAKO EMAITZAK

Ondoren, Erosketa eta Ekipamenduetako Zerbitzuaren funtzio desberdinak birpasatzen dira, zifra nagusiak jasoz:

3.1. Erosketa kudeaketa

2017 urtean, udal-arlo desberdinetarako hornidurak kontratatzekeo proiektu ugari kudeatu ziren. Ondoren, egindako horniduretako batzuk jasotzen dira:

- Udaltzaingorako, Obra Brigadarako eta beste udal-zerbitzu batzuetarako jantziak hornitzea.
- Udaltzaingorako material espezifiko hornitzea.
- Inprimagailuentzako papera hornitzea.
- Haur-jolasak eta kirol-ekipamendua hornitzea.
- Bide publikorako eserlekuak eta hesiak hornitzea.

- Arbolak, arbustuak eta landareak, kimuak, substratuak, ongarria, legarrak, uharriak, ureztaketarako materiala eta beste material espezifiko batzuk hornitzea lorezaintza-zerbitzurako.
- Erregaiak hornitzea ibilgailutarako eta makineriarako.
- Eraikuntzako materiala hornitzea.
- Garbiketarako materiala hornitzea.
- Material elektrikoa hornitzea.
- Iturgintzako materiala hornitzea.
- Hornigai industrialak hornitzea.
- Pintura hornitzea.
- Bideetako seinaleak (bertikala eta horizontala) eta bideetako pintura berezia hornitzea.
- Bulegoko materiala hornitzea.
- Informatikako material osagarria hornitzea.
- Burdinazko, egurrezko eta tratatutako egurrezko materiala eta material osagarriak hornitzea.

3.2. Ekipamendu proiektuen garapena

Erosketako departamentuak zenbait ekipamendu-proiektu garatu ditu 2017 urtean. Horrela, bada, ekipamendu eta hornidura ugari kontratatu ditu udal-arlo desberdinetarako. Ondoren, 2017ko proiektu esanguratsuenetako batzuk zerrendatzen dira:

- Udaltzaingorako eta Babes Zibilerako TETRA Transmisio Digitaleko irrati sistema ezarri eta zabaldu da.
- Ikus-entzunezko, arbel digital eta bideokonferentzietarako ekipamendua Irun Factory eta ekintzailatza espazioetarako.
- Larrialdietako 5 etxebizitza osorik ekipatzea.
- Bideo-zaintzako kamerak hornitzea eta jartzea Polizia komisariarako, Artxiborako eta Kontserbatoriorako.

- Telefono eta komunikazio sistemak eguneratu eta zabaltzea (zuntz optikoaren sarea eta kableatu egituratua) eta kableatua zabaltzea 1Gb arte zabaltzeko.
- Palmera Monteroko biltegietarako eta udalak kudeatzen dituen eraikin desberdinetako sarbideak kontrolatzeko sistemak zabaltzea.
- Eszenatokiaren egitura hornitzea hiriko auzo desberdinetan egiten diren ekitaldietarako.
- Altzariak, hainbat udal-zerbitzuetarako (Gizarte Ongizatea, Euskara, Ogasuna, Hirigintza).
- Palmera Montero guneko areto funtzioaniztun guztietarako eta adinekoen espaziorako ikus-entzunezko sistemak.
- Behobiako adinekoen espaziorako (antzinako guardia-gorputza) ekipamendua, altzariak eta ikus-entzunezko sistemak kontratatzea.

3.2.1. Ekipamendu-proiektuen zuzendaritza teknikoa eta koordinazioa

Ekipamendu-proiektu guztietan, Erosketa eta Ekipamenduko zerbitzuak berak definitu ditu proiektuak eta, halaber, proiektuak egikaritzeko lanak koordinatu ere egin ditu, eta ez da kanpoko kontsultoretza edo aholkularitzaren beharrik izan.

Alde horretatik, zerbitzuko burutzak zuzenean hartu du bere gain proiektuen definizio teknikoa eta zuzendaritza teknologikoa, eta ez da kanpoko ingeniari-tza edo enpresen beharrik izan.

Proiektuen ardua zerbitzuak berak izateko aukera honen ondorioz diru asko aurreztu da, eta, gainera, sistemak ere hobeto ezagutzen dira, gerora zabaldu behar izanez gero ere edo mantentzea hobeto kudeatzeko. Era berean, hobeto integratu dira udaleko informazio-, segurtasun- eta komunikazio-sistemak eta abar ere.


3.3. Horniduren eta ekipamenduen datu ekonomikoak

Erosketa eta Ekipamenduen departamenduak kudeatutako zenbatekoa 2017 urtean **2.357.996 eurokoa** izan da, beraz, horrek esan nahi du 2016 urtearekin alderatuta %12ko igoera izan duela. Tramitatu dira 2.109 faktura baino gehiago, 2.504 eskaera (diru-kopuruan %28ko igoera izan du) eta 76 espediente (%15eko igoera), jarraian erakusten den taulan adierazten den bezala.

ESKAERA ETA ESPEDIENTEEN DATUAK	ZENBATEKOA, GUZTIRA	FAKT. KOP.	ESKAERA KOP.	ESKAEREN ZENBATEKOA	ESPED. ZENBATEKOA	ESPED. KOP.
2016	2.104.208 €	2000	2398	990.587 €	1.113.621 €	66
2017	2.357.996 €	2109	2504	1.267.996 €	1.090.000 €	76
DIFERENTZIA 2017 vs 2016	%12	%5	%4	%28	%-2	%15

Zenbatekoaren %46 izaera eta zenbateko desberdineko 76 kontratazio-espediteren bidez izapidetu da. Horietatik, 48 (%63) beste udal-arlo batzuetarako kudeatu dira.

DISTRIBUCIÓN EXPEDIENTES GESTIONADOS PARA OTRAS ÁREAS



Erosketa-Ekipamenduko beste arlo eta kontu-sailetarako kudeatutako espediente kopuruen banaketa

Ondoren, kudeatutako espediente kopurua jasotzen da eta 2016 urtearekiko alderaketa. Argi ikusten da azkeneko urteekin alderatuta goranzko joera dagoela:

Espediente mota	2016ko espediente kopurua	2017ko espediente kopurua
3.000-21.000€	57	52
21.000-99.999€	8	7
>100,000€	1	2
Guztira	66	76

Urtea	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
>21.000€ espedienteak	1	2	5	1	11	9	9



3.4. Kontsumoen eta Inbentarioen kontrola

Hornidurak eta zerbitzuak kontratatzeaz gainera, udal-arloetan jarritako ekipamenduen inbentarioak mantentzeaz eta kontsumoak kontrolatzeaz arduratzen da erosketa departamentua. Horretan, honako elementu hauek sartzen dira:

- **Erregai-kontrola.** Udalaren ibilgailuetarako eta makineriarako erabilitako erregaia kudeatzen da, eta baita eraikin batzuetan berokuntzarako erabiltzen den C gasolioa ere. Ondoren, bi ataletan zenbat litro kontsumitu diren jasotzen da (ibilgailuak eta berokuntza):

IBILGAILUAK ETA MAKINERIA: A GASOLIOA + GASOLINA (LITROAK)

2014ko datua	2015eko datua	2016ko datua	2017ko datua
42.392	36.497	36.098	34.352
AURREKO URTEAREKIKO DIFERENTZIA %TAN	%-13,9	%-1,1	%-4,8

C GASOLIOA (LITROAK)

Berokuntza (eraikinak)

2014ko datua	2015eko datua	2016ko datua	2017ko datua
159.520	63.642	140.105	51.463
AURREKO URTEAREKIKO DIFERENTZIA %TAN		%120,1	%-63,3

- **Automobil-parkea mantentzea.** Udalaren ibilgailu guztien mantentzea sartzen da; haietako gehienak, Udaltzaingokoak eta Obra Brigadakoak.

2017ko aurrekontuak 165.375,00 euroko diru kopurua jasotzen zuen 2017 urterako automobil-parkearen mantentzea ordaintzeko sortzen joan zitezkeen beharren arabera, hala nola gasolio edo gasolinazko motordun makinariaren mantentzea ordaintzeko.

Aplikazio honetako gastu nagusia, non makinariaren mantentzeagatik oso gastu txikia den, batez ere automobilen parkea mantentzeko bideratzen da, martxan dauden 58 ibilgailuk osatzen baitu parke hori (horietako 15 batez ere Udaltzaingoarentzako motozikletak dira), batzuk oso zaharrak eta, beraz, mantentzeko kostu handiak sortzen dituzte.

Automobilen parke horren antzinatasuna aztertuta, martxan dauden ibilgailuetatik 32k (%55) 10 urte baino gehiago dituzte, horietako 11k 15 urte baino gehiago, 4 ibilgailuk 20 urte baino gehiago eta bada 25 urtetik gora duenik ere.

Pilatutako kilometrajeari dagokionez, 19 ibilgailuk (%44 dira) 100.000 km baino gehiago egin dituzte, 9 ibilgailuk 140.000 km baino gehiago eta bik 200.000 km baino gehiago. Kontuan eduki behar da ibilgailu guztiek normalean joan-etorri laburrak egiten dituztela eta hiri barnean.

Martxan dagoen aipatu automobil-parke horren desglose eguneratua, datu adierazgarrienekin, ondorengoa da:

Zerbitzua / Departamento	Ibilgailu mota/ Tipo de vehículo	Zahartasuna/ Antigüedad	Kilometroak/ Kilómetros
GUNEAK ETA EGOKITZAPENA	FURGONETA	25	205714
PARKEAK ETA LORATEGIAK	FURGONETA	22	80747
PARKEAK ETA LORATEGIAK	KAMIOIA	22	55850
GUNEAK ETA EGOKITZAPENA	KAMIOIA	20	149813
GIZARTE ZEBITZUAK	FURGONETA	19	38700
LANDA ZAINZA	LUR OROTAKOA	19	42000
UDALZAINGOA	MOTOA	17	40550
UDALZAINGOA	MOTOA	17	52398
KIROLAK	FURGONETA	17	62020
PARKEAK ETA LORATEGIAK	FURGONETA	17	69577
OBRETAKO BRIGADA	FURGONETA	16	102120
UDALZAINGOA	FURGONETA	16	127650
OBRETAKO BRIGADA	FURGONETA	15	104394

UDALZAINGOA	MOTOA	15	48812
UDALZAINGOA	MOTOA	15	49580
UDALZAINGOA	MOTOA	15	47956
ERREGISTROA	FURGONETA	15	44412
OBRETAKO BRIGADA	KAMIOIA	14	119691
OBRETAKO BRIGADA	FURGONETA	14	57575
OBRETAKO BRIGADA	FURGONETA	12	138714
UDALZAINGOA	AUTOA	12	173316
UDALZAINGOA	FURGONETA	12	151299
OBRETAKO BRIGADA	KAMIOIA	11	51868
OBRETAKO BRIGADA	KAMIOIA	11	39535
OBRETAKO BRIGADA	KAMIOIA	11	73981
PARKEAK ETA LORATEGIAK	FURGONETA	11	93478
INFORMATIKA	AUTOA	11	15266
EROSKETAK	FURGONETA	11	45460
OBRETAKO BRIGADA	FURGONETA	10	38945
ERAIKINEN GARBIKETA	AUTOA	10	38786
BABES ZIBILA	LUR OROTAKOA	10	18954
LANDA ZAINZA	LUR OROTAKOA	10	121378
UDALZAINGOA	MOTOA	9	33059
UDALZAINGOA	MOTOA	9	31987
UDALZAINGOA	MOTOA	9	15607
UDALZAINGOA	MOTOA	9	31441
GUNEAK ETA EGOKITZAPENA	KAMIOIA	9	67353
PARKEAK ETA LORATEGIAK	KAMIOIA	9	0
UDALZAINGOA	AUTOA	9	49542
UDALZAINGOA	AUTOA	8	63346


UDALZAINGOA	MOTOA	8	22538
UDALZAINGOA	MOTOA	8	16953
UDALZAINGOA	AUTOA	8	181214
OBRETAKO BRIGADA	KAMIOIA	8	42236
OBRETAKO BRIGADA	FURGONETA	8	532600
UDALZAINGOA	AUTOA	8	184368
UDALZAINGOA	AUTOA	8	175690
UDALZAINGOA	AUTOA	8	163000
UDALZAINGOA	AUTOA	8	197303
ERREGISTROA	MOTOA	6	21218
ERREGISTROA	MOTOA	6	22712
UDALZAINGOA	MOTOA	5	10406
UDALZAINGOA	MOTOA	5	152
UDALZAINGOA	AUTOA	3	95412
UDALZAINGOA	AUTOA	3	131208
UDALZAINGOA	AUTOA	3	131830
UDALZAINGOA	AUTOA	3	133513
BABES ZIBILA	LUR OROTAKOA	1	439

Automobil-parkearen mantentze-lan prebentiboko eta konpontzekoaren kostuari dagokionez, ondorengo zifrak nabarmentzen dira:

Automobil-parkea mantentzea.	Zenbatekoa guztira	Matxura kop.	Matxuren batz besteko zenbatekoa (€)
Turismoak	105.675,58 €	203	520,57
Motoak	1.894,83 €	12	157,9
Makineria	946,82 €	5	189,36
GUZTIRA	108.517,23 €	220	493,26
AURREKONTUKO ZENBATEKOA	165.375,00		

Aurreztutakoa guztira	%-34,38	
-----------------------	----------------	--

GASTUAREN KONTU-SAILAK	2013	2014	2015	2016	2017
Hasierako aurrekontua	165.000,00 €	150.000,00 €	150.000,00 €	157.500,00 €	165.375,00 €
Egindako gastua	163.541,00 €	155.916,00 €	143.369,00 €	108.602,37 €	113.097,91 €
Aurreztutako zenbatekoa	1.459,00 €	- 5.916,00 €	6.631,00 €	48.897,63 €	52.277,09 €
% aurrezpena	%1	%-4	%4	%31	%32



- **Papera:** DIN A-4 (% 95) eta DIN A-3 (% 5) paper birziklatua birjartzen da, udal-departamentu guztietan erabiltzeko, batik bat fotokopiatzeko eta inprimatzeko.

PAPER KONTSUMOA GUZTIRA	2015	2016	2017
Kg orri	11.371,03	8.731,80	8.271,03
Paper-kostua / urteko	16.765,75	12.192,69	11.004,08
	% aurrezpena aurreko	%-23	%-5,3

	urtearekiko	
--	-------------	--

Euskalit-en datuen arabera, atxikita dauden beste administrazio batzuekin alderatuta, 2017an(dauzkagun azkeneko datuak) langile bakoitzeko kontsumitu den A4 paperaren kilokopurua %10 gutxiago izan da.


- **Telefonia finkoa eta telefonia mugikorra:** Kontsumoaren eta inbentarioaren kontrola mantentzen da telefono finkoetan (525 luzapen) eta mugikorretan (guztira 144), eta, gainera, terminalak gehitu eta birjarri egiten dira, beharrezkoa denean. Gaur egun, Smartphone motako 93 terminal mugikor erabiltzen dira, ahots- eta datu zerbitzua dutenak, eta 51 terminal, ahots-zerbitzudunak.

Telefono finkoko luzapenen banaketa ondorengoa da:

KOKAPENAK - ZENTRALITAK 2018	Aktibo dauden luzapen kop.
Irungo Udala (Udaletxea, Kostorbe eta zentral horri lotutakoak)	396 luz.
Irunvi	12 luz.
Kontserbatorioa	52 luz.
Artaleku Kiroldegia	47 luz.
Azkenportu kiroldegia	18 luz.
GUZTIRA	525 luz.

Ondoren, azken urteetako aurrekontuaren eta benetako gastuaren zifrak jasotzen dira:

TELEFONIA FINKOA ETA MUGIKORRA	2013	2014	2015	2016	2017
Hasierako aurrekontua	225.000,00 €	225.000,00 €	225.000,00 €	225.000,00 €	225.000,00 €
Egindako gastua	178.163,21 €	117.315,67 €	115.725,48 €	114.446,34 €	107.235,70 €
Aurreztutako zenbatekoa	46.836,79 €	107.684,33 €	109.274,52 €	110.553,66 €	117.764,30 €
% aurrezpena	%20,8	%47,9	%48,6	%49,1	%52,3




Azken urteetan bulego-materialean egin den gastuaren eboluzioa aztertuta, ahalegin handia egin da gastua doitzeko eta kontrolatzeko azken urte hauetan, eta dezente aurreztea lortu da azken 3 urte hauetan (337.592,48 €).




- **Jantziak:** Udaltzaingoko eta Obra Brigadako eta beste udal-zerbitzuetako (500 erreferentzia desberdinek osatua) jantzi-kontsumoaren eta stockaren kontrola. Ondoren, azken urteetako aurrekontuaren eta benetako gastuaren zifrak jasotzen dira, non ikusten den gastuari eusteko eta aurreko urteetatik geratutako stocka murrizteko ahalegin handia egin dela.

JANTZIAK	2013	2014	2015	2016	2017
Hasierako aurrekontua	80.000,00 €	80.000,00 €	80.000,00 €	80.000,00 €	80.000,00 €
Egindako gastua	81.274,50 €	78.830,04 €	47.706,73 €	25.699,36 €	32.429,90 €
Aurreztutako zenbatekoa	- 1.274,50 €	1.169,96 €	32.293,27 €	54.300,64 €	47.570,10 €
% aurrezpena	%-1,6	%1,5	%40,4	%67,9	%59,5




Azken urteetan jantzietan egin den gastuaren eboluzioa aztertuta, ahalegin handia egin da 2015 eta 2017 bitartean stocka murrizteko jantzien biltegiari. Horrela, dezente aurreztu da azkeneko 3 urteetan, hain zuzen, 134.164,01 € aurreztea lortuz.

- **Bulegoko materiala:** Eskatzen den bulego-materiala hornitzen da, eta kontsumoak kontrolatzen dira departamentutara. Ondoren, azken urteetako aurrekontuaren eta benetako gastuaren zifrak jasotzen dira.



Azken urteetan bulego-materialean egin den gastuaren eboluzioa aztertuta, ahalegin handia egin da gastua doitzeko eta kontrolatzeko, eta dezente aurreztu da azken 3 urteetan, hain zuzen, 68.311,69 €.



- **Bide-seinaleztapena:** Stockaren kontrola, Irungo obretan eta bide publikoetan erabilitako seinaleak birjatzea.
- **Garbiketako materiala.**

3.5. Ekipamenduak mantentzeko kudeaketa

Erosketa eta Ekipamenduen departamentua arduratzen da udal-bulego ugarian jarritako sistemak mantentzeko lana kudeatzeaz. Horri begira, bai gorabeherak eta matxurak eta bai sistemen mantentze prebentiboa kudeatzen dira. Instalazioen eta ekipoen mantentze-lan horren bitartez ahalik eta funtzionamendu-baldintza onenetan kontserbatzea lortu nahi da, matxura eta akats posibleak prebenituz, beraz, era horretan lortzen da sistemek funtzionatzea kalitate eta segurtasun maila handienekin.

Honako sistema hauen mantentze-lana nabarmendu behar da:

- Espazio desberdinetan ikus-entzunezko sistemen mantentze-lana (udaletxea, Palmera Montero gunea, CBA, ...), proiektzio, aldibereko itzulpen, megafonia, bideo eta proiektzio, hitzaldi eta abarrerako sistemak barne.

- Segurtasun sistemak mantentzea, X izpien bidezko ikuskaritzarako ekipoa ...
- Bideo-zaintzako kamerak zenbait eraikinetan eta trafikoa kontrolatzeko kamerak.
- Automobil-parkea mantentzea.
- Zuntz optiko eta kableatu egituratuaren azpiegitura mantentzea.
- Telefono sistema eta deien arretarako zentroak mantentzea.
- Inprimagailu eta makina funtzioaniztunen multzoa mantentzea.
- Altzari-mantentzea.
- Ikus-entzunezko sistemak.
- Telefono-zentralak, ahots eta datuen azpiegitura eta zuntz optikoa.

Ondoren, sistema nagusiak mantentzeari lotutako datuak jasotzen dira:

Telefono-zentralak, eta kableatu-berritzea


Honako zifra hauek eman dira 2017 urterako:

Telefono-zentralak, kableatu-sare egituratua eta zuntz optikoa	2016
Iruren zabaldutako udal-zuntz optikoaren kilometroak	23 km baino gehiago
Telefono finkoen kopurua	473
Zentralita-kopurua	7
Urteko gorabehera-kopurua (matxurak, zabalpenak, aldaketak, etab.)	146
Kudeatu diren gorabehera guztiak (matxurak, zabalpenak eta aldaketak)	

Telefonia finkoa eta telefonia mugikorra

Telefono finkoak eta telefono mugikorrak zenbatuta, komunikazio zerbitzuarekin zerikusia duten daturik nagusienak erakusten dira jarraian, bai telefonia finko eta mugikorren operadoreen komunikazio zerbitzuei dagokienez eta bai barnean zabaldutako komunikazio-azpiegiturari dagokienez:

Telefonia finkoa, komunikazio-sistema, kableatu egituratua eta zuntz optikoa		2017
	Telefonia finkoaren gorabeherak eta	16
	Telefono sistema eta komunikazioetarako barneko	235

	azpiegitura: Kudeatu diren gorabeherak (matxurak, zabalpenak eta aldaketak)	
Telefonia mugikorra		
	Linea aktiboak guztira	144
	Ahotsa	51
	Ahotsa eta datuak	93

Telefonia finkoetan eta datuetan egon diren gorabeherai dagokienez, datu eta komunikazio-lineetako daturik nagusienak ondorengoak izan dira:

MES	Nº AVISOS	HRS AVISOS	MEDIA HRS AVISO
ENERO	3	25,43	8,48
FEBRERO	2	1,93	0,97
MARZO	3	7,13	2,38
ABRIL	1	2,33	2,33
JUNIO	3	7,97	2,66
JULIO	1	0,70	0,70
OCTUBRE	1	1,05	1,05
NOVIEMBRE	1	42,85	42,85
DICIEMBRE	1	0,90	0,90

Internet-eko hornitzaileari buruzko gorabeherai dagokienez, udal eraikin desberdinetan banatutako 29 internet-linea dauzkagu eta gorabeheren kopurua eta haiek artatzeko denbora ondorengoak da:

MES	Nº AVISOS	HRS AVISOS	MEDIA HRS AVISO
AGOSTO	2	9,30	4,65
SEPTIEMBRE	1	0,78	0,78
OCTUBRE	2	74,47	37,23
NOVIEMBRE	2	4,87	2,43

Telefono finkoko ahots eta primarioei dagokienez, Irungo Udalak 20 kanaletako 2 sarbide RDSI primario kontratatuta ditu, hala nola zentralitarekin oinarritzko 63 linea eta 12 RDSI linea. Ondoren jasotzen dira hileko gorabeherak eta abisuaren araberako arreta:

MES	Nº AVISOS	HRS AVISOS	MEDIA HRS AVISO
ENERO	1	53,98	53,98
FEBRERO	1	4,25	4,25
ABRIL	1	1,87	1,87
MAYO	1	17,38	17,38
JULIO	3	153,28	51,09
AGOSTO	1	191,68	191,68
SEPTIEMBRE	2	34,52	17,26
OCTUBRE	1	6,15	6,15
NOVIEMBRE	1	2,65	2,65

Makina funtzioaniztunak

Inprimatzeko makina funtzioaniztunen mantentze-lanetarako, guztira, 57 makina daude udal departamentu eta bulegoetan. Erosketa eta Ekipamenduen zerbitzutik inprimatzeko, eskaneatzeko, fotokopiatzeko... makinaren matxurak kudeatzen dira, eta baita suntsikorrak aldatzeko gorabeherak ere. Gaur egun, 57 makina daude instalatuta.

Honako gorabehera hauek izan dira 2017an:

	2017	2016
Makina funtzioaniztunen kopurua	57	57
Kudeatutako gorabehera-kopurua (matxurak, hornidurak)	195	167
Konpontzeko batez besteko denbora	47 min	30 min

Ikus-entzunezko sistemak

Eraikin desberdinetan (udaletxea, Palmera Montero gunea eta CBA) instalatutako ikus-entzunezko sistema desberdinen mantentze-lanaren barnean, hitzaldi, megafonia, mikrofonía finko eta harigabeen sistemak, itzulpen sistemak, proiektzio sistemak, soinu-sistemak, etab.

Automobil-parkea eta makineria

Guztira, 58 ibilgailu daude aktiboan (automobilak, motoak, furgonetak, ...). 203 konponketa egin dira, guztira, 2017an (205 egin ziren 2016an).

Automobil-parkea mantentzea 2017an	Zenbatekoa guztira	Matxura kop.	Matxuraren batez besteko zenbatekoa
Turismoak	105.675,58 €	203	520,57

Motoak	1.894,83 €	12	157,90
Makineria	946,82 €	5	189,36
GUZTIRA	108.517,23 €	220	493,26

Lekualdaketak

Kontratututako mantentze-zerbitzuen barnean, udaleko dependentzia desberdinen arteko bulego-aldaketak sartzen dira. Horretan guztira 294 ordu eman dira, beraz, horrek esan nahi du 2016 urtearekin alderatuta beharrak %28an igo direla.

LEKUALDAKETAK	Ordu kop.
2016	230
2017	294
gehikuntza	%28

4. EKIPAMENDU PROIEKTUEN GARAPENA - INBERTSIOAK

Atal honetan, Erosketa eta Ekipamenduetako zerbitzuaren inbertsio-sailen barruan kudeatu diren ekipamendu-proiektuen xehetasuna jasotzen da, zehazki instalazioen eta altzarien kontu-sailena, horiek baitira esleitutako inbertsioen zati nagusiak.

Horrenbestez, 2017rako onetsitako aurrekontuan hasieran aurreikusitako inbertsioen eta irismenaren xehetasuna egiten da, eta benetan egin diren inbertsioekin alderatzen da. Ikusi daitekeenez, hasieran aurreikusitako irismen osoa garatu da, eta dezente aurreztu da, bereziki Palmera Montero Gunerako ekipamendu eta sistemetarako inbertsioen atalean. Sistemen definizio teknikoa Erosketa eta Ekipamenduen zerbitzuan bertan garatuenez gero, sistemak hobeto integratzea bermatu da, baina, batez ere, horrela diru dezente aurreztu da.

4.1. Aurrekontuan sartu eta 2017an egikaritutako proiektuak

Ondoren, 2016ko aurrekontuetan aurkeztutako irismenean hasieran aurreikusitako ekipamendu-proiektuen xehetasuna jasotzen da, dagokion justifikazio teknikoa duela:

Instalazioak

Instalazioetarako kontu-sailak udal-azpiegiturak eguneratu eta zabaldu beharri erantzuten dio. Nabarmendu behar da ahots eta datuetarako udal-azpiegituren tamaina oso handia dela, eta horren ondorioz, etengabe inbertitu beharra dago, haien operatibotasun osoa etengabe bermatzeko, horrela egunean mantenduko baitira azpiegitura horiek, eta erabat operatibo eta arrazoizko eguneratze teknologikoaren erritmoan.

2017ko aurrekontuan proposatutako inbertsioan hainbat jarduketa jasotzen dira, eta haiek guztiak egin dira; gainera, haien irismena ere zabaldu egin da, zenbait udal-zerbitzuek beharrazatik hala eskatuta:

DESKRIBAPENA: **TELEFONO SISTEMA EGUNERATZEA ETA HOBETZEA**

HELBURUAK:

Komunikazio-sistema integratuen (telefonía eta Outlook integratzea) lizentziak ezartzen aurrera egin da, mezularitza bateratu baterantz jotzeko funtzionalitate aurreratuek sartuz.

DESKRIBAPENA: **KOMUNIKAZIOEN, ZUNTZ OPTIKOAREN ETA KABLEATUAREN AZPIEGITURA HANDIAGOTZEA**

GARRANTZIA ETA HELBURUAK:

Atal honen barruan udaleko zuntz optikoaren azpiegitura handiagotzea proposatzen da, egungo trazatuak handituz, kokapen berriekiko konexioa egiteko eta 6. kategoriako UTP kablea eraikin berrietan jartzeko. Era horretan, eraikin berrietarako kableatuetan proposatutako eguneratze horrek ahalbidetzen du gaur egun eraikin gehienetan instalatuta dagoen 4. kategoriako kableatua aldatzea 6-7. kategoriako berriengatik, beraz, prestazioak eta abiadura (1GHz) hobetzea ekarriko du.

Hortaz, 2015ean udaletxean amaitutako komunikazioen kableatua berritzeko prozesua egin ondoren, Udaltzaingoa eta Kulturaren kableatuaren azpiegitura hobetu egin da.

Ahots- eta datu-kableatua ere egin da, CBA Liburutegiak eskatutako edukiera-kontrolerako sistemarako, liburutegira jende gehien noiz joaten den jakiteko eta horrela zerbitzu hobea eskaini ahal izateko.

Azken batean, aurrekontuan hasieran aurreikusitako behar guztiak estali dira, eta toki batzuetan zabaldu ere egin da, udal-departamentuek beharragatik eskaera berriak egin dituztelako, sistemen hedapenean eta prestazioetan hazte aldera.

DESKRIBAPENA: **SAI-en BIRJARPENA**

GARRANTZIA ETA HELBURUAK:

Etengabe elikatzeke SAI sistemak ezinbestekoak dira eraikinen instalazioetan eta zerbitzari zuzenetan, esaterako, telefono-zentralak elikatzen dituztenak, aukera ematen baitute baldintza normaletan funtzionatzen jarraitu dezaten elikatzea eroriz gero ere. Ekipo horien bateak pixkanaka gaitasuna galtzen dute, haien bizitza operatiboak aurrera egin ahala, eta ezertarako balio ez dutela geratzen dira, une jakin batetik aurrera; izaten dituzten tentsio-eroriko egoera-kopuruaren arabera gertatzen da hori, eta duten lan-kargaren arabera.

Horregatik, eta zerbitzari-sistemarako eta telefono-zentralitetarako udal-instalazioetan gaur egun dagoen SAI parkea kontuan hartuta, eguneratu eta ordeztu egin dira bateriak, zeren SAIk hutsegiteko eta autonomia (funtzionamendu-denbora elikatzea eroriz gero) gutxitzeko arriskua sortu baitaiteke, eta baita lehertzeko edo su hartzeko arriskua ere.

Komunikazioetako, telefonia-ekipoetako eta informatika-zentroetako racks armairuek elikatzen duten Egungo SAI parkea 29 SAIk osatzen dute, potentzia-maila desberdinekin (1000 VA-ko 17 ekipo, 3000 VA-ko 7 ekipo, 7500 VA-ko 3 ekipo CPD informatikoak elikatzeke, 10000 VA-ko ekipo 1 udallexean eta 20000 VA-ko ekipo trifasiko 1 Udaltzaingoan). 2015ean, SAI bateria batzuk ordeztu ziren, zaharrenak eta batez ere autonomia asko galdu zutela ikusi zitzaizkien. 2016an oraindik 11 ekipo zeuden etengabeko elikatzea zutenak, 5 urte baino zaharragoak, eta horregatik, aldatzea beharrezkoa zela dela ikusi diren SAI bateriak berritu egin dira.

DESKRIBAPENA: **BIDEOZAINITZA SISTEMAK EGUNERATZEA ETA ZABALTZEA**

GARRANTZIA ETA HELBURUAK:

Bideozaintza eta bideo-grabaketarako sistema zentrala videowall berri bat instalatuta 2016an eguneratu eta berritu ondoren, videowall horretan zentralizatzen baitira sistema horretara konektatutako kamerak, orain, kameren sarea instalatzea eta zabaltzea askoz ere errazagoa da, izan ere bideoen kudeaketa eta dauden irudien grabaketarako sistema desberdinak plataforma bakar batean integratzen ditu.

Plataforma berri hau prestatuta dago segurtasun edo trafikoaren kontrolerako kamera berriak pixkanaka integratuz joateko, bistaratzea eta grabazioa gestionatuz, Udaltzaingoko Koordinazio Zentroan eta kontroleko postu berrietan (Polizia, Udaletxea, eraikin indibidualak) dauden beharren arabera, baimen maila eta gestio gradu desberdinekin.

Era horretan, 2017 urtean kamerak areagotzen edo zaharkitutako ekipoak aldatzen jardun da udal eraikin batzuetan (komisaria, kontserbatorioa eta artxiboa).

Zentzu horretan, herriko komisariako kamera zaharrak aldatu eta gehitu egin dira. Musika Udal Kontserbatorio eta Eskolarako, bandalismo eta grafiti erasoak izan baititu bere instalazioetan, domo motako 2 kamera mugikor perimetral berri instalatu dira segurtasuna hobetzeko.

Azkenik, artxiboko gordailuan, atezainak erretiroa hartu duenez, 4 kamera finko jarri dira, eta hauek ere Udaltzaingoaren bisualizazio eta grabaketako aurreko plataforman integratu dira, bide batez sarbideak kontrolatzeko sistema bat ere jarri.

DESKRIBAPENA: ARETO NAGUSIKO IKUS-ENTZUNEZKO SISTEMAK BERRITU ETA HOBETZEA

GARRANTZIA ETA HELBURUAK:

Atal honen barnean sartzen da areto nagusiko hari-gabeko mikrofonía sistema berritzeko kontratazioa, toki oso sentsiblea baita zonaldean frekuentzia desberdinak pilatzen direlako, eta aretoaren amplifikazio eta sonorizazio ekipoak ere hobetu egin dira.

DESKRIBAPENA: **PALMERA - MONTERO GUNERAKO IKUS-ENTZUNEZKO SISTEMAK**

GARRANTZIA ETA HELBURUAK:

2017 urtean Palmera Montero guneko funtzioanitzeko areto guztietan eta adinekoen espazioan ikus-entzunezko sistema ezarri da eta proiektio, mikrofonía eta sonorizazio sistema modernoak eta kalitate handikoak hornitu zaizkie, azken batean erabileran malgutasun handia ahalbidetuz.

DESKRIBAPENA: **BEHOBIAKO ADINEKOEN GUNERAKO EKIPAMENDUA**

GARRANTZIA ETA HELBURUAK:

2017 urte amaieran Behobiako adinekoen espaziorako (antzinako guardia-gorputza) ekipamendua, altzariak eta ikus-entzunezko sistemak kontratatatu dira.

Altzariak

Altzarietarako kontu-sailek altzaritarako eta ekipamendurako oinarritzko beharrak estaltzeko beharrezkoak diren inbertsioak jasotzen dituzte (bulego berriak gaitu beharra, altzariak premiaz aldatzea, dauden instalazioetan aldaketak egitea, alta berriak, etab.). Kontu-sail honetan altzari txikiak etengabe erosi beharra egon da udal zerbitzuak zabaltzeko, bulego berriak egokitzeko, egun dauden instalazioak aldatzeko edo hondatutako elementuak berritzeko.

4.2. Emaidza ekonomikoa

Ondoren, bi aurrekontu-aplikazioetan egindako inbertsioen laburpen ekonomikoa jasotzen da, hasieran aurreikusitako proiektu guztiak gauzatu eta planteatutako helburuak bete ondoren lortu den diru-aurrezpena xehatuta.

Aurrezpen hori definizio-teknikoaren, erosketa-kudeaketaren eta proiektuen egikaritzea koordinatzearen ondorio izan da; izan ere, zerbitzu honetako burutzak egin baititu guztiak, kanpoko inongo kontsultoretza edo ingeniartzaren beharrik gabe.

Dirua aurrezteaz gainera, nabarmendu behar da sistemak hobeto ezagutzen direla barruan eta horrela errazago moldatu daitezkeela; horrek guztiak lagundu egingo du gerora egin behar diren mantentze- eta zabaltze-lanak hobeto kudeatzen.

KONTU-SAILA	HASIERAKO AURREKONTUA	BENETAN EGIKARITUA	AURREZPENA
Instalazioak	94.000,00 €	74.988,45 €	
Altzariak	6.000,00 €	12.079,57	12.931,98 €
GUZTIRA	100.000,00 €	87.068,02 €	12.931,98 €
	Lortutako % aurrezpena		%12,93